



BANAKAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA 2004-2005 IKASTURTEA

(AGINDUAREN AURRERAPENA)

Deialdi honen ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

1. Aurreko deialdietan bezalaxe lau dirulaguntza mota aurreikusten dira:

A: Titulazio akademikoa edo espezializazioa lortzera zuzenduta dauden Unibertsitateko Ikasketak (700 €)

B: E.A.E.-n egingo diren prestakuntza-jarduerak (ikastaro laburrak, kongresuak, atzerriko hizkuntzak,...) (450 €)

C: E.A.E.tik kanpo baina Estatuaren barruan egingo diren prestakuntza-jarduerak (ikastaro laburrak, kongresuak,...) (600 €)

D: Estatutik kanpo eta Europako Batasunaren barruan egingo diren prestakuntza-jarduerak (1.500 €)

2. Prestakuntza jardueraren bukaerak 2004ko urriaren 1a eta 2005eko irailaren 30a bitartean izan behar du. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA URRIAREN 7RA ARTE ZABALIK DAGO.

3. Atzerriko hizkuntzetarako, irakaslearen espezialitatea edozein delarik, Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikula diruz lagunduko da edo Hezkuntza Sailak hizkuntzak ikasteko abian jarri duen e-lea programaren sarbide-matrikula (www.hiru.com).

Hizkuntza Eskola Ofizialetako oinarrizko zikloaren ziurtagiria duten irakasleei, Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikula edo Hizkuntzak irakasteko berezituak dauden Ikastetxeetako matrikula, diruz lagunduko zaie (B motako dirulaguntzei dagokien mugarekin)

4. C motako dirulaguntzetan, 20 ordu baino gehiagoko prestakuntza duten jarduerak baino ez dira diruz lagunduko.

5. Aurkezteko beharreko dokumentazioaren artean, prestakuntza-jardueran parte hartu izanaren edo aprobetxamenduaren egiaztagiria daude.

OHARRA:

Deialdiaren Agindua 2005eko ekainaren 14ko EHAA n argitaratuko da.